



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2024ko martxoaren 12a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Juan Kruz Igerabide

(Aduna, 1956)

Juan Kruz Igerabide Sarasola idazleak da literaturaren alor ugari jorratu ditu eta haur eta gazte literaturan lan ugari argitaratu ditu. Sari garrantzitsuak jaso ditu, besteak beste, *Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria* 1999an, *Jonas eta hozkailu beldurtia* lanarekin, *Espainiako Kritika Saria* birritan, 1994an eta 2003an, *Sarean leiho* eta *Mailu isila* lanengatik, eta 2018an *Espainiako Haur eta Gazte Literaturaren Sari Nazionala*, *Abezedario titirijario* lanarekin.

Magisteritza ikasketak egin eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzan irakasle aritu zen zenbait urtetan; gerora, Euskal Filologian doktoregoa egin zuen, eta EHUUn Euskara Teknikoko irakaslea izan da. Gerora euskara teknikaria izan da EHUko Euskara Zerbitzuan, eta EHUko *Mikel Laboa katedraren* zuzendaria ere bai. 2003an euskaltzain urgazle izendatu zuten.

Idazle oparoa ez ezik, ikerlaria ere bada. Haur Literaturan ikerketak egin izan ditu, batez ere, poesia aztertuz. Aipatzekoa da 1993an osatutako ikerlana; ahozko tradizioaren alorra aztertzen duen *Bularretik mintzora: haurra, ahozkotasuna eta literatura* (Erein, 2000).

Ura saltoka



Juan Kruz Igerabidek badu –liburu honetan esaten digun bezala, betidanik izan du– naturarekiko joera bat, jaidura bat,aldi berean izan dena jolasleku, bizigarri, egunerokorako ikasgai. Haur garaiko oroitzenetatik hasita (“Hantxe gaude aita, ama eta hirurok iturritik edaten, nik lauzpabost urte besterik ez”), azkenaldion hunkitzen duen aktualitate gordineraino (“Hortxe gaude gizakiok zuhaitz taxonomikoaren bazter batean, guztien buru gabela usterik”), nolabaiteko autobiografia sentimental bat, nolabaiteko kontakizun generazional bat, nolabaiteko historia natural bat osatu du Igerabidek, ohi duen gisan pasarte mamitsu, gogoeta hedatzaile, prosa ezin gozoagoz betea. Ovidio garaikide batek egingo lukeen

modura, burmuina besteari irekia beti, galdu gabe sekula izpirituko, jakinik jarrera hori dela gizakiaren eta naturaren arteko harremanak hobeki ulertzeko modu bakarra.

Juan Kruz Igerabideren argitalpenak (hautaketa)

Nobela

Hauts bihurtu zineten (2005) **N IGE**

Elurra sutan (2009)

Motoa (2012)

Zangoztraba (2014) **N IGE**

Doneaneko alaba (2021) **N IGE**

Saiakera

Bularretik mintzora (1993)

Ura saltoka: natura eta kultura jolasean (2023) **N IGE**

Poesia

Mailu isila (2002)

Gorputz osorako poemak (2005)

Maite poemak hasiberrientzat (2016)

Haur eta gazte literatura

Begi-niniaren poemak (1992)

Gauetz zoo batean (1994)

Egun osorako poemak eta beste (1993)

Oporraldi bat baserrian (1996)

Haur korapiloak (1997)

Gau, gau, gau. Oi zein ituna (1997)

Jonas eta hozkailu beldurtia (1998)

Ondojoan (2000, Elkar)

Maisu berria (2000)

Bosniara nahi (2003)

Txano Gorritxo eta amona basatia (2005)

Gorputz osorako poemak (2005)

Kakotxen k herrialdea, K herrialdea bezala plazaratuta (2006)

Pipitaki (2006)

Bagdadeko aurpegiak (2007)

Motoa (2012)

Abecedario titirijario : (letren txotxongiloa) (2018)

Kritikak esandakoak

“... Autoreak naturako hainbat elementu bat hartu ditu abiapuntu gisa: txoko bat (Saturraran, Ursalto, Hiru Erregeren mahaia...), animaliairekin bat (txantxangorria, ehunzangoa, katuak...), landareak (haritza, sendabelarrak...). Elementu horiekin lotutako oroitzapenak eta jakintzak harilkatu ditu, guztira 37 artikulua labur osatzeko. Egiten dituen erreferentzietan asko irakurritako pertsona baten hegoak sumatzen dira, oso gora hegaldatzen. Greziar mitologia eta Euskal Herriko herri jakintza ageri dira; baina, batez ere, bere bizitzarekin zerikusia duten parajeak. Nire gusturako, heltzen den parajearen eta gaiaren antzinatasunarekin bat dator artikulua kalitatea. Zenbat eta gazteago idazlea, zenbat eta zaharrago oroitzapena, are urregorriago. Zenbait artikulua maisulanak dira. Aforismoetan trebatutako esaldi kontutendek tartekatzen ditu, gutxiren luman topatu litekeen estilo umoretsu edo poetikoarekin. Patxadaz mintzo zaio irakurleari Igerabide; makila eskutan, kasik basoaren parte. Ordulariak markatzen duen denboraren atzetik ziztuaren doan trekkingzaleak ikusiko ez duen mendizale jakintsua da. Gelditu zaitez, irakurle, eta egin iezaiozu eguraldiari buruzko edozein aipamen. Basoa sumatuko duzu, hizketan.”

Jon Martin-Etxebeste / El Diario Vasco, 2023-09-16

“...Honenbestez, jauziz jauzi azaleratzen ditu, erabat sakondu gabe, hamaika gai buruzko iritziak: gizakiak teknologiar dion miresmena, krisi ekologikoa, izadiak sortzen duen lilura, ehiza, poesiaren eta naturaren arteko harremana edo gerla, besteak beste. Gaiak badatoz eta badoaz, baina ez du, hala ere, hutsaltasunik erakusten Igerabideren jarioak. Aldiz, gehiago hurbiltzen da basoan zehar egurastu ahala sortzen den hizketaldira, solas-hariak hasi, galdu eta berrartzen dituen jardunera. Hori hala, idazlea berriketa gozoan sumatzen da eta irakurlea entzule adi izatera gonbidatzen du, harekin batera hausnarketa isilean. Darabilen hizkuntza aberatsa eta malgua nabarmendu behar da saiakera honetan, bai eta aipatzen dituen erreferentzia literario, filosofiko eta zientifikoak ere, idazlearen ideiak pausatzen baitituzte testuan, lurrera ekartzen.

Liburuan zehar kritikatzeko duenez, gizarte honetan “benetako arrazoa non dagoen ez zaigu axola, arrazoiarekin irtetea baizik” eta, ildo horretan, hausnarketa gehienek izaera irekia dute, ez determinista, malgua. Alabaina, azkeneko kapituluetan, COVIDaren gaiari heltzen dionean, Igerabideren gogoeta kritika gogor bilakatzen da, eta argudioak arrazoiaren jabe izateko defendatzen ditu, ez eztabaida osatzeko asmoz. Hori dela eta, nahiz eta bere burua ez kokatu jarrera batearen ez bestearen tarteko bidean, garatzen duen diskurtsoak nabarmen jartzen du zalantzan zientzia, pandemian erabili ziren neurriak, etab. Kontua da, hainbatetan datu ez-fidagarriak edo are gezurrezkoak haizatzen dituela, adibidez, bidaiatzeko COVID pasaportearen beharrezkoa dela aipatzen duenean. Ondorioz, uste dut liburuaren amaierako pasarteek testuak hasiera batean hartutako bide xalo eta zabala nahastu edo narrasten dutela, gogoeta irekiak zirenak gotorleku bilakatzen baitira.”

Irati Majuelo / Berria, 2023-05-21

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Juan_Kruz_Igerabide

https://eu.wikipedia.org/wiki/Zerrenda:Juan_Kruz_Igerabideren_lanak

Literaturaren zubitegia

<https://zubitegia.armiarma.eus/?i=50>

Kritiken hemeroteca

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8787>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8833>

Youtube

https://www.youtube.com/watch?v=Hp_8bxpRwIM